

Matalas-en Matxinada (1661)

Deia, 1983-06-19.

Matalas-en Mutina, Euskal herrian egin diren Matxinada nagusietako bat bezala hartu dut neuk *Euskadiko Historian*; besteak: Gatzaren Mutina (1631-1634), aduanen aldatzea (1718) eta Azpeitiko Matxinada famatua (1766).

Zuberoako Matxinadaren buru Bernardo Goihenetche izan zen, *Matalas* izen orde ezaguna. Mithikile-ko (Moncayolle) "Goihenetchea"-n jaio zen, eta herri berean zen apaiz Luis XIVgarrenaren erregegoan. Gizon sendoa zen eta ikasia. Bordeleko Unibertsitatean ikasketak egin; hemen eman zioten jipoi dela eta, ezarri zioten "Matalas" gaitzizena.

Gatzaren Mutinaren eragin bera izan zuen honek: Erregek zituen "hiru premia gorriak".

Aitzaki honekin herri baso eta ohiana guztiez jabetu zen; gero, kandelatu, subastatu egin zituen eta Zuberoako diputadu zen Arnaud Oihenartek herriak bereak zituenak berrerosi zituzan, 84.000 librarako prestamena lortzeko jestedotan zebilela, Trois Villeseko kondeak, eta mainaz!, 70.000an erosi zituen.

Kondea biltzen bilakatu zen Zuberoako jaun eta jabe.

Laster biltzen dira 7.000 gizon, eta bidean armatuz, Matalasen bila doaz gidatu ditzan. Mutinaren oihua: *Herria, herria!*; Libarren-ko basoan biltzen dira, aintzina Zuberoako agintariak bilerak egiten zituzten leku berean. Hemen, Bilbon gertatuaren antzeko, agintariak herriagandik aldentuta daude.

Matalas bera nahiko moderatua omen zen, baina honen jarraitzaileak ez hainbeste, eta egin zituzten bidegabekeria batzu.

Urriaren hasieran, Matalas, Undursin-ko errotan aurkitzen da. Calvo izeneko bat 400 zaldizkoekin bere bila datorrela jakin duenean, errota babesten du. Hil honen 11-ean eusten dio lehenengo erasoari; laster konturatzen da, hala ere, ezin duela errotan jarrai, eta hamabigarrengoa gauez zortzi gizonekin irtetzen da Genteingo bordaraino; baina dena alferrik dela konturaturik, entregatzen da. Mauleko gaztelera daramate; hurrengo egunean bertan, gauez, egiten diote itaunketa; 16-an, berekin atzeman zituztenei; 18-19an amaitzen da prozesu laburra.

Azaroaren 8-an hiltzen dute.

Lehenik, zatikatuta hiltzera kondenatu zuten, baina gotzaia oposatu zen, apaiz batekin hil aurretik hau egitea ez zen zilegi; lepamoztu besterik ez zioten egin; hala, leporik gabeko gorpua lotu zioten gorpil bati, zatikatua izan zedin.

Hurrengo egunean, 9-an Matalasen burua Muleko sarrerako kanoizulo batetan kokatua agertu zen, eskarmenturako. Herriak, urrikiz, hostu egin zuen urtearen azkenengo egunean, abenduak 31, lur santuan ehortzeko.